

III.—Azkue jaunak Efonkari'ko euskalki-berezian, ipui batzuek irakurri dizkigu ta tartetako itz batzuek iragariaz.

IV.—Azkue jaunak bere *Morfologia*'n dakarzkien atzizki *-bel -bil* gaitzat artu-ta Eguskitza jaunak txosten eder bat irakurri digu, batez ere, aiforturik atzizki oyek lerabilkiten ikurpena.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Joñaila' ren 29'an.

Batzañaldira jaun abek datoz: Azkue, Kanpion, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, ta Lakonbe, eta Muxika eta Garitaonandia euskaltzain-ordekoak.

I.—Aita Intza'k iragartzen digu, Lekarotz'ko Ikastetxean izango dala, urtero bezela, euskal-azterketa ta egoki litzakela euskaltzain bat antxe agertzea.

Aita Intza beroni eman zayo Euskaltzaindiaren ordezkuntza.

II.—Napañoa'ko *Euskeraren adiskideak* Auritz'en izango dute. Garagañila'ren 27'an, alako jai berezi bat. Azkue jauna nai litzake itzalditxo bat egiteko. Onek bayezkoa eman du.

III.—*Eusko-Ikaskuntza*'ren idazki bat irakurri da ta idazki onez Madrid'ko bere Batzordearen eskari bat azaltzen digu. Batzorde oñek erdal-euskal iztegitxo bat nai luke.

Onetzaz erabaki auxe artu da: Iztegi orixe argitaratu, bañan ontarako Azkue jaunak lendik egiña daukana buru artu-ta.

IV.—Bi idazki jaso ditu Euskaltzaindiak, aŕen da aŕen eskaturik, alegiñak egin ditzala Nikolas Ormaetxea jauna geon artetik ez kanporatzeko.

Erantzun bear da: Euskaltzaindiak ezin eman liza-yokela bizimenaren betebiderik bañan bai tarteka sor-tzen zaizkion lanen saria.

V.—Oraintsu, Gobernuak, ikastetxetan erderazko ez diran liburutxuak irakurtzeko gebendua eman omen du. Onetzaz asko itz egin da euskaltzain artean, ba-ñan ezkera erabaki berezi batera eldu.

Ikastetxetan buru diranai eskafuko zaye gebendu oŕen idazki edo agindua ta ala balitz Nuntzio jauna-rengana jo liteke.

VI.—Azkue jaunak bere Iztegi aundian ez dauden itzen zeŕenda galanta berak irakuŕi digu. Geyen-ge-yenak Aezkoa'n bilduak dira.

VII.—Aezkoa bertako ipui edo kontu batzuek ere bai ta bigaramonerako beste gai batzuek utzi-ta otoi-tzez amaitu da batzaŕaldia.

Donostia'n, Aldundi-Jauregian, 1926'ko Joŕaila' ren 30'an.

Azkue maipuru dala, batzaŕaldira datoz auŕeko age-rian aipatu diran euskaltzain ta ordezko jaunak.

I.—Landeretxe jaunak irakuŕi digu euskal-itz-zeŕen-da luzea, beronek an da emen bilduak.

II.—Aita Intza'k ere beste sala, Napaŕoa ta beste Euskal-alderdietan atxituak. Abek eta Landeretxe'nak *Euskera'n* argitaratuko dira.

III.—Lakonbe jaunak, Intxauspe apaizaren ezkutitz-ak irakuŕi dizkigu. Luziano Bonaparte zanari idatzi-yak dira.